

2018/0000011 DEKRETUA

Gaurko datarekin alkateak honako Dekretu hau eman du:

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hamazortziko urtarrilaren zortzian.

Tokiko Gobernu Batzarrak 2017ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran Haur, Nerabe eta Gazteen sustapenerako erdi mailako teknikarien lan-poltsa sortzeko izangaien hautaketa prozesua hasteko erabakia hartu zuen.

Amaitu da Haur, Nerabe eta Gazteen sustapenerako erdi mailako teknikariaren lan-poltsa sortzeko hautaketa prozesua, Hernaniko Udalean aldi baterako beharrak betetzeko egin dena.

2017ko abenduaren 22an hautaketa prozesuaren Epaimahaiak ebazpen proposamena aurkeztu zion Alkateari; bertan zehazten zen izangaien zerrenda, emaitzen arabera antolatua, Epaimahaiaren azken bileraren aktan jasota dagoen bezala.

Azaldutako guztia kontuan hartuta, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1 h) artikuluan eman zaizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

## ERABAKI DUT

**LEHENENGOA.**- Onartzea Haur, Nerabe eta Gazteen sustapenerako erdi mailako teknikarien lan-poltsa, Hernaniko Udalean aldi baterako beharrak betetzeko sortutakoa. Lan-poltsa ebazpen honen eranskinean doa.

**BIGARRENA.** Deialdiaren oinarri arautzaileek xedatzen dutenaren arabera kudeatzea zerrenda hau.

<i>Izena</i>	<i>Abizenak</i>	<i>Guztira</i>
Maider	Errasti Amiano	58,4
Itziar	Bilbao Estevez	56,4
Nora	Urquidi Guibelalde	53,8
Iñaki	Otamendi Gutierrez	45,4
Maider	Gomez Perez de Arenaza	45,4
Araika	Arrona Gonzalez	42

Luis Intxauspe Arozamena alkateak agindu eta sinatu du, eta nik, Miren Arantza Arrazola Iturbek, idazkariordea naizenez, ziurtatu egin dut.

Eta horren berri ematen dizu(e)gu dagozkion ondorioetarako, eta aldi berean jakinarazten dizu(e)gu administrazio-bidea amaitzen duen berriazko egintza horren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakezu(e)la Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta biharamunetik hasita, Administrazioarekiko Auziak arautzen dituen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 8, 46 eta hurrengo artikuluetan ezarritakoaren arabera, Herri Administrazioen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeko 114 c) artikuluekin bat etorritz.

Nolanahi ere, nahi izanez gero, aurreko paragrafoan adierazitako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, berraztertze errekurtsoa aurkez dezakezu(e) jakinarazitako berriazko ebazpenaren kontra, hura eman zuen organoaren aurrean, jakinarazpen hori jaso eta hurrengo egunetik hasita hilabeteko epean.

Hori guztia egin daiteke aurretik adierazitako Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123 eta 124 artikulua eta kidekoetan ezarritakoarekin bat etorriz, eta norberaren eskubideak babesteko egoki irizitako egintza edo errekursoak aurkeztearen kalterik gabe.

Hernanin, 2018ko urtarrilaren 8an  
IDAZKARIORDEA

